



Spike Leeren 'Do the right thing' filmea pantailaratuko du FASEk.

EEBBetako zinemagintza independenteak zabalduko du Bilboko FASEko egitaraua

Zine klub bilbotarrak lau filme pantailaratuko ditu jatorrizko bertsioan

Euskal Herriko zine klub zaharrenak, Bilboko FAS, aurtengo emanaldien lehen egitaraua aurkeztu berri du. Estatu Batuetako zinemagintza independentearekin, hain zuzen, emango zaio hasiera zine klub horretako estraineko zikloari.

BILBO

Datorren astelehenean, urriak 7 betetzerakoan, hasiko da Bilboko FAS zine klubeko 91/92 denboraldiko programazioa. Hilabete horretan Iparrameriketako pelikula indepen-

dienteen zikloa izango da eta, besteak beste, Spike Lee-ren 'Do the right thing' eta Coen anaien 'Miller's crossing' filmeak ikusi ahal izango dira.

Zine klub hori Bilboko zaletuek ohizko zine-zirkuitutik kanpo duten alternatiba bakarrenetakoa eta, unibertsitat mailako zine emanaldiarekin batera, pelikulak jatorrizko bertsioan ikusteko dagoen ia modu bakarra dela esan daiteke. Horrela, hilabete honetan eskainiko diren lau filmeetatik lau jatorrizko bertsioan pantailaratuko dira.

Europar sortu diren zinema molde berriei osatuko den zikloarekin uztartuko da datozen hilabetetan amerikarrena. Emanaldi guztien

ondotik zine-foruma, elkarrizketa izango da ohi den legez.

Denboraldi berriari hasiera emango dion filmea Leeren *opera prima* izango da, 1989. urtekoa. Ordutik zortzi egunetara, urriak 14, Joel eta Ethan Coen anaien 'Miller's crossing' filmea eskainiko da, kritikari askoren iritziz iazko filmerik onena.

Urriaren 21ean eta 28an, astelehena ere bai, Jim Jarmusch-en 'Mystery train' (1989) eta Gus van Sant-en 'Drugstore Cowboy' (1989) pantailaratuko dute, hurrenez hurren.

Emanaldi guztiak arratsaldeko 7.30etan izango dira, FAS zine klubak Bilboko San Bizente plazan duen aretoan.

IRAGARKI MERKEAK Tfna.: (943) 46 90 22

Euskarari ateak zabaltzen

✓ ALFABETATZEN
✓ EGA
✓ IKASTARO BEREZIAK

LEGAZPI 6
euskaltegia

Lasale Enparantza 3. beheko 42 43 66 DONOSTIA

BASERRI BAT NAFARROAN EUSKARAZ BIZITZEKO

- Urbasa eta Aralarretik oso hurbil
- Egoitza edo mantenua
- Bakarko edo Taldeko

BAKAIKU 94-423.23.12
948-56.3652

SENDAGILE DENTISTA

J. M. ARIZALA
ASEGUROAK: Lagun Aro, Diputazioa, Previsia, Asisa, Capisa, Ipresa, Medifata, Salud Data
Ferrerias plaza, 5-entr.
Tfna.: 45 90 45
Amara DONOSTIA



EUSKARA IKASTAROAK

DONOSTIA:
ALTZA euskaltegia.
Txirrita Bertsolaria 23.
39 43 77.
MONPAS euskaltegia.
San Franzisko 61.
(Zemoria 5).
27 27 11.
RIKARDO ARREGI euskalt.
Sanchez Toca 1-1.
46 46 55.
ERRETERIAN:
ORTZADAR euskaltegia.
Beheko kalea 11.
52 66 57.

BERBA LOGOPEDIAKO GABINETEA

HIZKUNTZ ETA
HIZKETA
ARAZOAK
ZUZENTZEN
DITU GU

Manuel Allende, 23-1.A
48010 BILBO
Tfna.: 410 02 92



THINDUKI, S.A.

PORTUGAL OSOA 9 EGUN 38.900 pta.
MAROKKO HIRI IMPERIALAK 10 EGUN 47.100 pta.
MAROKKO ATLAS SAHARA 12 EGUN 55.900 pta.
ITALIA 12 EGUN 55.700 pta.
ITALIA BUSA + HOTELA 11 EGUN 64.900 pta.
PARIS HERBEHEREAK 10 EGUN 48.900 pta.

EUROPAKO MUJINA

ABIOIA + BUSA 12 EGUN 74.600 pta.

INGALATERRA ESKOZIA

ABIOIA + BUSA 11 EGUN 76.300 pta.

ESKANDINAVIA ABIOIA 10 EGUN 95.300 pta.

ESKANDINAVIA FIORDOAK

ABIOIA 10 EGUN 102.900 pta.

IPAR LURMUTURRA ABIOIA 15 EGUN 143.600 pta.

TURKIA ABIOIA 15 EGUN 94.400 pta.

GREZIA ISTANBUL CAPADOZIA

ABIOIA 15 EGUN 94.700 pta.

GREZIA ISTANBUL ABIOIA 15 EGUN 92.700 pta.

KENIA ABIOIA 10 EGUN 167.000 pta.

INDIA NEPAL ABIOIA 20 EGUN 198.400 pta.

INDIA NEPAL ABIOIA 16 EGUN 203.600 pta.

TAILANDIA ABIOIA 13 EGUN 143.700 pta.

SINGAPUR MALAYSIA TAILANDIA

ABIOIA 15 EGUN 189.400 pta.

TXINA ABIOIA 21 EGUN 212.000 pta.

TXINA TIBET NEPAL ABIOIA 23 EGUN 293.000 pta.

ESTATU BATUAK KANADA

ABIOIA 15 EGUN 157.000 pta.

MEXIKO NEW YORK ABIOIA 15 EGUN 189.000 pta.

MEXIKO GUATEMALA ABIOIA 22 EGUN 229.000 pta.

FRANZISKO GASKUE, 1 / Telf.: 52 45 12 / 20100 ERRETERIA
ETXAGUE GENERALA, 14 / Telf.: 42 38 84 / 20003 DONOSTIA
URDANETA, 11 Behe / Telf.: 88 72 00 / ORDIZIA
LEGAZPI, 8 Behe / Telf.: 72 37 76 / ZUMARRAGA

34x37mm

34x37
MODULO

EGUN BAT 1.680pta/84l.
ASTEBETE 8.320pta/416l.
BI ASTE 14.400pta/720l.
HILABETE 20.200pta/1.010l.

Nadine Gordimer hegoafrikarrarentzat literaturako aurtengo Nobel Saria

STOCKHOLM

Inoiz baino azkarrago, Suediako Akademiak erabaki du aurtengo Literatur Nobel saria eta Nadine Gordimer prosagile hegoafrikarrari eman dio. Gizartearen zerbitzurako baliagarri diren obra epiko bikainen egilea izateagatik lortu du hegoafrikar horrek sari preziatua.

Akademiakoen erabakiak 25 urteko jokaera apurtu du. Izan ere, 1966. urtetik aurrera literaturako Nobel saridun guztiak gizonezkoak izan dira. Suediarren ohizko jokamolde horrek, hala ere, ez du harri-duririk sortu erabakia ezagutu eta gero, Gordimer aipatua izan bait zen Nobelerako *kiniela* guztietan.

Sariemaileen ustetan, hirurogeitazortzi urteko idazleak «sakontasunez idazten du gizakien arteko erlazio nahaspilatsuei buruz». Arraza zurikoa izan arren, Gordimer *apartheiden* aurka azaldu da beti eta baita bere idazlanetan ere agertu izan du iritzia hori.

Hamabost urte zituelarik idazten hasitako hegoafrikarrak 10 nobela eta berrehun bat kontakizun labur idatzi ditu orain arte. 1953. urtean



Nadine Gordimer.

lehen liburuak plazaratu zituen, ipuin bilduma bat eta estraineko nobela, hain zuzen. Orduz geroztik eta 1984. urte arteko produktzioan hiru liburu nabarmen daitezke: 'Six Feet of the Country', 'A world of strangers' eta 'July's people'.

Literatur sari askoren irabazle, 1987, 1988 eta 1989. urteetan Nobelerako hautagai izan zen.

Ehundaka barcelonarrek omendu zuten atzo Maria Aurèlia Capmany idazle kataluniarra

BARCELONA

Eguerdiko 12.00etatik aurrera, ehundaka barcelonarrek azken agurra eman zioten Maria Aurèlia Capmany idazleari, hiri honetako udaltxean paraturiko hil kaperan.

Capmany herenegun gauez hil zen Barcelonan bertan lehengo astear- tean osasun makaltzearen ondoren. 73 urteko idazle kataluniarra koman zegoen harez geroztik. Maria Aurèlia Capmany, Aurelio Capmany kataluniar folkloristaren alaba eta PSCko zinegotzia izandakoa Barcelonako Udalean, katalanez idatzitako obra oparo baten egilea zen. Prosaegile bikaina, nobela eta kontakizun laburrak egiteaz aparte, makina bat kazetari artikuluak idatzi zituen.



Maria Aurèlia Capmany.



TANDEM Zure "Alemanategia"

Hiru plaza Udaltza ordaindutako ikastaro batean, alemanik ikasteko eta Alemanian praktikak egiteko. Beste ikastaroak: maila eta ordu guztiak. 'Flexibel': 19.600 pta. urtik maiatz bitartean. 'Ikastaro trinkoa': ikasbiderik modernoa. 'Alemanik euskaraz' ere. Proga ezazu dohan 1 edo 2 astetan. ARGIBIDEAK: 11.00etatik 13.00etara eta 18.00etatik 19.30etara. TANDEM: Izueta kalea, 7 (Gros sarreran) DONOSTIA Tfna.: 291 258



IRAKASLEAK BEHAR DIRA

Goizez, arratsalde eta gauez klaseak emateko. Beharrezkoak EGA eta diplomatu/lizentziatua izatea. Irakasle gaiek aste beteko prestaketa ikastaroa egin beharko dute.

RIKARDO ARREGI
EUSKALTEGIA
Sanchez Toca, 1-1.
DONOSTIA
Tfna.: (943) 46.46.55



URRIAK 14: KURTSO HASIERA GORDE ZURE LEKUA! MATRIKULA IREKIA

INGELES BESTELAKO ERA BATEAN IKASI NAHI DUEN EDONORENTZAT
HASIBERRIAK: Badira lekuak arratsaldeko 4ak eta 8.15etan
BESTE MAILAK: galde egiguzu
PLUS, if you already speak English and want to keep it up, join our Club
ELKANO, 8 beheko
Tfna.: 42.08.31 DONOSTIA